

## BESTELAKO XEDAPENAK

### LEHENDAKARITZA

# 1161

*EBAZPENA, 2013ko otsailaren 7koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Herrizaingoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 30eko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzei Euskal Autonomia Erkidegoko 2013rako luzatutako Aurrekontu Orokorretan emandako dotazioa iragartzen duena. Izan ere, agindu horrek ezartzen du Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura.*

Herrizaingoko sailburuaren 2011ko maiatzaren 30eko Aginduak (2011ko maiatzaren 30eko EHAA, 101. zenbakia) ezartzen du Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura.

Finantziazio eta aurrekontu-egozteari buruzko xedapen gehigarriak honela dio: «Publizitate-printzipioa betetzeko asmoz, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren ebazpenez argitara emango da, aurrekontu ekitaldi bakoitzaren hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako emandako dotazioa»

Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2013ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bitartez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari ematen zaizkio Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren titularraren eskumenak eta eginkizunak.

Abenduaren 23ko 6/2011 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrak onetsi ziren, 2013an luzatuak izan direnak. Diru-laguntza horiek finantzatzeko, 540.000 euroko partida zuzendu zen, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren kontura, eta ondoren adierazten da aurrekontuko partidaren xehetasuna: 13.0.1.01 04.0000.1.453.01.22110.001.N.

Horren indarrez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Publizitate-printzipioa betetzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Aurrekontu Orokorrak onetsi zituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean adierazi denez –2013an luzatuak izan direnak–, 540.000 euroko partida bideratu da 2011ko maiatzaren 30eko Aginduak aurreikusitako diru-laguntzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2013ko martxoaren 1a, ostirala

3. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 7a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.